www.alberdania.net | http://alberdania@alberdania.net ALBERDANIA Istillaga plaza 2, behea C, 20304 Irun **Tel**: + 34 943 63 28 14

# Panglosa, norentzat?

## Antoni Olivé

**Euskaratzailea:** Iñaki Alegria

**Bilduma:** Narrazioa
**Generoa:** Eleberria
**Formatua:** 14 x 20,50 cm.
**Orrialdeak:** 162
**Koadernaketa:** paperezko azala

**Argitalpen data:** 2026/12/02

**ISBN**: 979-13-88609-00-8

SALNEURRIA (BEZ gabe)**:** 17,31 €

SALNEURRIA (BEZ barne)**:** 18,00 €

**ZIENTZIA-FIKZIOA, HIZKUNTZA GUTXITUAK, ITZULPEN AUTOMATIKOA, TEKNOLOGIA ETA GIZARTEA**




# Sinopsia

**Denok elkar ulertzeko gai bagina, zer gertatuko litzateke hizkuntza gutxituekin? Duela 30 urte idatzitako zientzia-fikziozko eleberri gaur-gaurkoa.**

Zer gertatuko litzateke etorkizuneko Katalunian, katalanaren, gaztelaniaren, ingelesaren eta arabieraren arteko oreka linguistiko ahulean, panglos izeneko aparatu bat asmatuko balitz? Panglosak ahozko itzultzaile automatiko baten gisan funtzionatuko luke, eta aukera emango luke edonork edonor ulertzeko, nork bere hizkuntza soilik ezagututa.

1990eko hamarkadaren hasieran idatzitako Zientzia Fikziozko eleberria izan arren, gaurkotasun handiko gaia dakar Olivék, panglosak Kataluniako hizkuntza erabileran izan lezakeen eraginaz gogoeta egiten baitu. Irakurleak hausnarketara bideratuko dituen egoerak ere aurkituko ditu eleberrian: Nola eragiten du itzultzaile automatikoen garapenak hizkuntza gutxituen biziraupenean? Ze komunitate linguistikorentzat da panglosa desiragarri? Ze eragin izango luke horrek guztiak identitate nazionalean?

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko ikertzaile batek asmatu du panglosa, eta bere begiradatik murgilduko da irakurlea unibertsitate-munduko borroketan eta asmakuntzak sortutako bor-bor mediatikoan. Hauteskunde-kanpaina betean dagoen Bartzelonan, panglosak gatazka soziala ekarri du, eta iraultza gertu sumatzen da.

# Egileaz



**Antoni Olivé (Bartzelona, 1946)**
Antoni Olivé Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko (UPC) Informatikako katedradun emeritua da. Informatikako teknikari gisa hasi zuen bere ibilbide profesionala enpresa-munduan, eta, ondoren, UPCko irakasle izan zen. Bertan, irakaskuntzan eta ikerketan jardun zuen, softwarearen ingeniaritzaren eta informazio-sistemen arloetan. Bere espezialitateko gaiei buruzko bi liburu argitaratu ditu.
Informatika Fakultateko dekanoa, Zerbitzuen eta Informazio Sistemen Ingeniaritza Saileko zuzendaria eta Doktorego Eskolako zuzendaria izan da. Informatikako Teknikarien Elkarteko presidentea izan zen, baita bere espezialitateko nazioarteko bi elkartetako buru ere. Institut d'Estudis Catalans erakundeko kidea da.